



02 IRITZIAK >>>

EUSKARAREN ERABILERAN KALE

Xabier Isasi

EHU

Helbide elektronikoa: pspisbax@sc.ehu.es

Demagun hamar hiztunetarik batek euskaraz egiten duela. Euskararen *presentzia*, bada, %10koa dela esan dezakegu. Ondo. Baina hori zer da asko ala gutxi? Hamar hiztun horien artean zenbat dira euskaraz dakitenak? Bazter dezagun euskaraz dihardun bakar horrek bakarriketan dabilenik. Hori horrela, hamarreko horretan, gutxienik, bi euskaldun dago. Bi gutxienik eta hamar gehienez. Bi besterik ez balego euskaldunen proportzioak %20 doi-doi jotzen du. Euskaldunak %20 izatea eta kaleko erabilera %10raino iristea ez da bat ere datu txarra. Erabilera maila oso handia da, bistan da. Oro har, euskaraz egitea *posible denean* %50a erabiltzen da-eta.

Hamar hiztun horien artean bi edo euskaldun gehiago balego, berriz, euskararen erabilera maila hori, %10 bera izanik, okerrago baloratzen dugu. Zenbat eta euskaldun gehiago izan erabilera maila orduan eta eskasago jotzen dugu. Hiztun guztiak euskaldunak izango balira, euskararen erabilera %100era heldu zitekeenean, %10eko erabilera maila lotsagarria iruditu litzaiguke. Honekin guztionekin esan nahi dugu erabilera-tasa bera interpretazio desberdinak izan ditzakeela.

Hizkuntzen arteko ukipen egoeran murgildurik, euskararen erabilera-tasa erlatiboa da. Oro har, euskararen ageriko erabilera (berbazkoa)

euskaldunen proportzioa eta hizkuntza komunitatearen trinkotasunaren funtzio zuzena da. Hau da, zenbat eta euskaldun gehiago eta eurak zenbat eta bilduago bizi euskararen erabilera-tasa orduan eta handiagoa da. Faktore bi horiek, jakina, ez dira bakarrak, bai, ostera, esanguratsuenak eta erabakigarrienak. Ingurumari honetan euskararekiko *leialtasuna* hizkuntza komunitatearen trinkotasunaren adierazle gisa uler daiteke.

Gatoz datuetara. Joan den urtean (2006) egindako kaleko euskararen erabilera azken neurketaren arabera Euskal Herri mailako erabilera-tasak %14,2 eman du, aurreko neurketa aldiko (2001) baino 0,7 puntu gehiago. Goian egindako itaun bera datorkigu gogora: hori zer da asko ala gutxi? Hazkuntza nolakoa izan da?

Analisi estatistiko xumea eginez hazkuntzaren esanguratsutasuna zalantzan jar daiteke. Hertsian esan behar dugu erabilera-tasaren hazkuntza apala izan dela. Edozein modutan, esandakoa ez da nahikoa euskararen erabilera azkia hobeto ulertzeko.

Esku artean darabilgun euskaldunen proportzioaren inguruko datuak nahiko zaharkiturik daude (2001) Dena den, euskaldunen proportzioa %26 eta %29 ingurukoa izan daitekeela jotzen badugu espero daitezkeen erabilera-tasak %4,8 eta %5,7 bitartekoak izango lirarteke. Hori horrela, 2006ko neurketaren arabera oraindino euskararen kaleko erabilera *erreral* dezente gorakoa da erabilera *estokastikoa* baino. Ondorioa gardena da: euskaldunek, oro har, euskararen erabilera publikoari eusten diote.

Txillardegiren eredu matematikoari jarraituz behatutako erabilera-tasari (%14,2) legokioken euskaldunen proportzioa %44,7koa kalkulatu dugu. Argi dago, beraz, Euskal Herriko gizartea linguistikoki *anisotropikoa* dela. Itxuraz datu baikorra da, itxuraz. Orain artean egindako neurketen argitan aztertzen badugu, berriz, ez baita horren baikorra.

Kaleko erabilera-neurketa urtea	Euskaldunen proportzioa	Behatutako erabilera-tasa	Zegokioken euskaldunen proportzioa	Koefizientea
1989	22,8%	10,8%	39,6%	1,74
1993	23,6%	12,0%	41,5%	1,76
1997	26,7%	13,0%	43,0%	1,61
2001	27,6%	13,5%	43,7%	1,58
2006 ¹	29,4%	14,2%	44,7%	1,52

1. taula: Erabilera-tasak eta euskaldunen proportzioak

Taula horretan, hasieran EKBek eta ondoren Klusterrak egindako erabilera-neurketaz gainera euskaldunen proportzioak, behatutako erabilera-tasei zegozkiekeen euskaldunen proportzioak eta euskaldunen proportzioen arteko ratioa (*koefizientea*) ipini ditugu. Ikus daitezkeenez behatutako erabilera-tasak, kasu guztietan, euskaldun proportzio handiak dagozkie. *Koefizientea* interpretatzeko 1 edo txikiago izango balitz euskararen erabilera-tasa eskasak direla ulertu behar dugu, 2tik

Hizkuntzen arteko ukipen egoeran murgildurik, euskararen erabilera-tasa erlatiboa da. Oro har, euskararen ageriko erabilera (berbazkoa) euskaldunen proportzioa eta hizkuntza komunitatearen trinkotasunaren funtzio zuzena da. Hau da, zenbat eta euskaldun gehiago eta eurak zenbat eta bilduago bizi euskararen erabilera-tasa orduan eta handiagoa da.

*Euskararen erabilera hazi
bai baina ahultzen ari da.
Badirudi euskaldunei oso
nekoso egiten zaiela
hizkuntzen arteko
asimetriari aurre egitea,
nekatzen ari direla,
alegia. Badirudi gero eta
gizarte zaharrago
honetan gero eta
gazteagoak diren
euskaldunek ez daukatela
nahikoa indarrik
euskararen erabilerari
eusteko.*

zenbat eta gertuago izan erabilera-tasak orduan eta hobeak direla esan nahi du. Taulan ageri denez erabilera-tasak onak dira. Alabaina, euskaldunen proportzioen arteko ratioa gero eta txikiagoa da. Horrek esan nahi du, gure ustez, euskararen erabilera indarra galtzen ari dela.

Lehen esan dugu euskararen erabilera euskaldunen proportzioa eta euren trinkotasunaren funtzio zuzena dela. Era berean esan genezake euskararen erabilerak eragiten duela euskaldunen proportzioaren hazkuntzan. Neurri batean, euskararen erabilera euskalduntzearen hauspoa da.

Badirudi ziklo baten amaieran, eta espero dugu berri baten atarian, gaudela. Euskararen erabilera hazi bai baina ahultzen ari da. Badirudi euskaldunei oso nekoso egiten zaiela hizkuntzen arteko asimetriari aurre egitea, nekatzen ari direla, alegia. Badirudi gero eta gizarte zaharrago honetan gero eta gazteagoak diren euskaldunek ez daukatela nahikoa indarrik euskararen erabilerari eusteko.

Egia da euskaldunok daukagula euskararen erabileraren giltzarria baina ez dirudi behar diren besteko bitartekorik daukagunik erabilera hori eragingarria izateko. Euskaraz egin nahi izate hutsak ez du lortzen hizkuntzen arteko asimetriaren harresia gainditzea.

Garaia iritsi da euskaldunok egiten dugun ahalegina, egiten dugulako, eragingarriagoa izan dadila. Hizkuntzen arteko asimetriaren langa gainditu ahal izateko euskaldunok berdintasunezkoa egoerak behar ditugu. Euskararen erabilerari eutsiko diogu, bai, baina asimetriaren aurkako borroka guztioi dagokigu.

Argi esanda, erdaldunek euskalduntzearekiko erakusten duten axo-lagabekeria euskararen egoera tamalgarriaren faktore nagusia da, ez euskararen erabilera. Euskaldunok euskara erabiltzeko daukagun ardura nahiko handia da, baina gure indarrak txikiak dira.■

OHARRA

1. Datuen faltan euskaldunen proportzioa EAEko *Euskararen Jarraipena III* dokumentutik atera dugu.